

Alkatearen soldata %35 igotzea onartu zuen pasa den Uztailaren 24ean Pasaiako udalbatzak PSE-EE eta EAJren alderdien botuekin. Udalbatzako aktan ikus daiteken moduan ni, Erik Rios Salazar, EAJKo zinegotzia ez nintzen udalbatzara bertaratu. Horren ondorioz, eta nahiz eta ez gehiengo absolutua izateko, ez bozketaren emaitza aldatzeko nire botua beharrezkoa ez izan, soldata igoeraren proposamena aurrera atera zen nire botua gabe.

Ni bertara ez agertu izana kasualitatea ez zela izan argi dute gehienek. Bizi dugunaren pareko krisi egoera batean, eta Gipuzkoako lurraldeko herririk txiroena den honetan langabe kopurua %16 dela kontutan hartuta, soldaten igoerak justifikaziorik ez duela uste dut. Alkate eta zinegotziek dugun onena ematera etorri behar dugu udalera modu altruista batean.

Soldaten igoera eta gero aipatuko ditudan beste arrazoi batzuk direla eta, jakinarazi nahi dut nire zinegotzi kargua utzi dudala. Bide batez, EAJn ditudan barne karguak ere utziko ditudala jakinarazten dizuet. EAJKo afiliatu xumea izatera pasatzen dut.

Erabaki gogorra izan da, baina azken urteetan ikasi dut ez dela beharrezko kargu bat izatea herrigintzan edo aberrigintzan lanean jarduteko. Heltzen da momentu bat non nekez babestu daitezkeen benetan pentsatzen edo defendatzen ez dituzun ideiak.

Bai Euskadi bai herri mailan EAJ eta PSE-EEren artean sinatutako akordioak ere izan du eraginik hartu dudan erabakian. Pasaia izan da herri horietako bat: abertzaleek gehiengoa batu arren, abertzale eta euskalduna ez den alkate bat heldu da agintera. Abertzaleen arteko elkarlanaren aldeko defentsa sutsua egin nahi dut. Gure herri izaera eta gure eskubideak ukatzen dituen alderdi bat ezin da gure lehentasunezko kidea izan.

Argi daukat Pasaiako EAJK bere pertsona hoberenak jarri dituela udal gobernuan, baina zoritzarrez, eta lehen aipatutako arrazoiak kontuan izanda, ezin dut udal gobernu honen parte izaten jarraitu. Udal kudeaketa gustatu arren, ordua heldu da politika bigarren maila batean uzteko. Beraz, irailetik aurrera nire berri izan nahi duenak, Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean topatuko nau ikasle moduan.

Stua: Erik Rios Salazar

Pasaia, 28 de Julio de 2015

El pasado 24 de Julio el pleno pasaitarra aprobó la subida de un 35% del sueldo del alcalde con el voto de los partidos PSE-EE y EAJ-PNV. Como se puede comprobar en el acta de aquel día, yo, Erik Rios Salazar, concejal de EAJ-PNV no asistí al citado pleno. A pesar de que mi voto no fuera necesario para articular una mayoría absoluta para cambiar el resultado de la votación, finalmente el pleno aprobó la subida de sueldos.

La mayoría tiene claro que mi no asistencia no fue una casualidad. En una situación de crisis, con una tasa de paro de un 16% en Pasaia, el municipio más pobre del territorio histórico de Gipuzkoa, por cierto, las subidas de sueldo no tienen justificación alguna. El alcalde y los concejales debemos venir a los ayuntamientos a dar lo mejor de manera desinteresada.

Debido a la desmesurada subida de sueldos, y a otras razones que luego explicaré, me veo en la necesidad de abandonar mi cargo de concejal. De la misma manera, anuncio que renuncio también a todos mis cargos internos dentro de EAJ-PNV. Paso a ser un simple afiliado de base más.

Ha sido una decisión difícil, pero estos años he aprendido que no es necesario tener un cargo para colaborar en la transformación de tu municipio y en la construcción nacional. Llega un momento en el que difícilmente puedes defender algunas ideas que no compartes.

Otra de las razones de mi dimisión son los pactos cerrados entre PNV-PSE tanto en Euskadi como a nivel de varios municipios, Pasaia entre ellos. Aquí, a pesar de que los abertzales somos mayoría, ha sido nombrada alcaldesa una persona que no es ni abertzale ni euskaldun. En esta despedida quiero hacer una defensa férrea del acuerdo entre abertzales. No puede ser nuestro socio preferente un partido que niega nuestra naturaleza como Pueblo y nuestros derechos históricos.

Tengo claro que EAJ-PNV de Pasaia ha puesto a sus mejores personas en el gobierno municipal, pero desgraciadamente, y por las razones anteriormente esgrimidas, no puedo seguir formando parte de este gobierno municipal. A pesar de apasionarme la gestión municipal, es hora de dejar la política en un segundo plano. Quien quiera saber de mí a partir de Septiembre me encontrará en Leioa en la Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación como alumno.

Fdo: Erik Rios Salazar.